

2025 URTEKO LIZTOR ASIARRAREN AURKAKO TRANPATZE KANPAINA

Tolosaldeako herrietan burututako ekintza txostena

1. Sarrera

2025eko udaberrian, liztor asiarra (Vespa velutina) kontrolatzeko helburuz, Tolosaldeko 23 herritan tranpatze kanpaina bateratua jarri dugu martxan. Kanpaina hau martxoaren hasieratik maiatzaren erdira bitartean gauzatu da, 6 asteko epean, eta helburua erreginak harrapatzea izan da, hauek udako kolonia berriak sortzen hasi baina lehen.

Eskualde osoan barrena banatutako tranpak astean behin bisitatu dira, eta eroritako liztor asiarrak eta bestelako espezieak zenbatu eta erregistratu dira. Bildutako datuak Gipuzkoako Foru Aldundiko basa animalien eta landareen zerbitzuari bidali zaizkio liztorren intentsitate eta banaketak ezagutzeko eta etorkizuneko kontrol-neurriak hobeto planifikatzeko.

2. Metodologia

- Tranpak: EVA motako tranpa eta erakargarri selektiboak erabili dira lanak egiteko. Tranpa hauetan orokorrean besteetan baina liztor gutxiago erortzen dira baina %98ko selektibotasuna bermatzen du, bertako espezieak ez baitira erortzen. Selektibotasun hau izaki, aldundiak 2026 urtetik aurrera tranpa hauen erabilera baimenduko du bakarrik.

- Kokapenak: 2024 urtean zehar ateratako kabi kopuruaren arabera kokatu dira tranpak: ateratako kabi bakoitzeko 2 tranpa jarri dira. Eskualdeko tranpatze bateratua egin denez Tolosaldea guztian 298 tranpa jarri ditugu. Esteka hauetan tranpen kokapenak ikus daitezke:

Kokapenak1:https://www.google.com/maps/d/u/3/edit?mid=1463Pvnhw_uwaTmVsVWBkFCEmfjDqMts&usp=sharing

Kokapenak2:<https://www.google.com/maps/d/u/3/edit?mid=1XMnotKopsaYyPGjfi8V5oCTdYzChlsw&usp=sharing>

Kokapenak3:<https://www.google.com/maps/d/u/3/edit?mid=1XMnotKopsaYyPGjfi8V5oCTdYzChlsw&usp=sharing>

- Belarmendik, Tolomendik eta Balerdipeko erleakek elkarlanean egin dugu kanpaina: Tolomendik udaletxeekin kudeaketa lanak egin ditu, Belarmendik eta Balerdipeko erleakek aldiz tranpatze lanak egin dituzte.


Lehen aipatu bezala 6 asteko tranpatze prozesuan astero pasa gara tranpa guztietatik zenbaketa lanak egin eta likido erakargarria aldatzera. Jarraipen hau egitea beharrezkoa da, tranparen batean bertako espezieak erortzen hasten badira tranparen kokalekua aldatzeko agindua ematen duelako Gipuzkoako Foru Aldundiak. Aurten hala ere ez da horrelako kasurik eman.

3. Herrika jasotako datuak asteka

ANOETA: Belarmendik burututako tranpatzea

asteak	Velutina	Crabro
1. astea (2025/03/10 - 2025/03/17)	0	0
2. astea (2025/03/17 - 2025/03/24)	14	0
3. astea (2025/03/24 - 2025/03/31)	6	0
4. astea (2025/03/31 - 2025/04/07)	180	0
5. astea (2025/04/07 - 2025/04/14)	140	0
6. astea (2025/04/14 - 2025/04/21)	38	0

Datuei erreparatuz erreginen agerpena nagusiki 4. eta 5. asteen artean gertatu dela ikusten da. Horrek baieztatzen du tenperatura eta baldintza fenologikoek eragina dutela erreginen mugimenduan. Etorkizunerako, funtsezkoa da tranpak martxoaren erdialdean jartzea eta aste horietan mantentzea, kanpainaren eraginkortasuna areagotzeko.



2025eko kanpainan guztira 5.560 liztor asiarren erregina harrapatu dira Tolosaldeko 24 herritan. Batez besteko kopurua 232 liztor da herriko, eta datuen desbideratze handia dago: Tolosak 735 izan ditu, batez bestekoaren hirukoitza.

Goiko kuartilean daude: Tolosa, Zizurkil, Anoeta eta Lizartza. Beheko kuartilean: Gaztelu, Hernialde, Baliarrain eta Oresa. Horrek adierazten du eragin handiko zonaldeak badaudela gure eskualdean.

● Herrien tipologiaren arabeko sailkapena

Herrien tamaina, kokapena eta jarduera erlezainarekin duen lotura aztertuta, ikus daiteke herri handiek eta erlezain aktibo gehiago dituztenek (Tolosa, Zizurkil, Anoeta) liztor kopuru handiagoa jaso dutela. Mendialdeko herri txikiagoetan (Gaztelu, Hernialde, Baliarrain) eragina apalagoa izan da. Sailkapen hau baliagarria izan daiteke baliabideak optimizatzeko.

4. Behatutako joerak eta ondorio nagusiak

- 2026ko kanpainan, Tolosa, Zizurkil eta Anoeta bezalako herrietan lehentasunezko esku-hartzea egin behar da.

- Aste nagusiak: apirilaren 1. eta 2. asteetan eta martxoko azken astean tranpatzea martxan egotea beharrezkoa ikusten da.

- Udazkenean habien bilaketa eta kentzea funtsezkoa izango da kolonien etena lortzeko.

- Herritarrentzako identifikazio gida eta alerta sistema digital bat ezartzea gomendatzen da.

- Udal arteko koordinazioa areagotu, datuak eta baliabideak denon artean partekatzeko.